

MAITASUNAK EZ DU MUGARIK

Oroitx Maiz
Gabiria, 16 urte

Itsasoko arrain jostariei begira geratu nintzen eskutitz hura irakurri ondorengo minutuetan. Haiek aske ziren, libre zebiltzan itsasoko ur gazietan igerian. Hura ikusirik, ezinegonezko zirrara sentitu nuen gorputzean, aske izan nahi, baina kaiola barnean preso zegoen txoriaren pare aurkitzen nuen ene burua, mugaz inguraturik. Triste, ilun nabaritzen nuen, garai batean indartsu nuen arima. Ezerezaren pareko nintzen, gau ilun eta baketsuan, ilargiaren argi xumearen miraila zen itsaso haren aurrean.

Letra haiek irakurtzearekin, malko lodi bat ixuri zitzaidan uretara. “Maite zaitut” hark zauskada berezi bat eragin zidan gorputz beltzaranean. Ene bihotzak gehiago ezin zuela adierazi zidan kolpe txiki batez. “Ikusi arte” hark zerbait egin beharrean nengoela esan nahi zidan, eskutitz haren atzean, itsasoaren beste aldean bazela norbait, maitasun neurrigabez maite ninduen.

Itsasertzeko hare epeletan nire gorputza bota nuenean, indar izugarria neureganatu banu bezala sentitu nintzen, edozer egiteko gauza. Mugarik eta oztoporik gabeko mundu berri bat imaginatu nuen, denok pozik bizi ginen mundu berri bat. Ur epelak ametsen erresuma zoragarritik atera ninduen, hanka zikinen inguruan somatu nuenean.

Errealitatean, bere eskubideen alde borrokatu nahiean, eta ezinean zebilen Afrikako biztanle bat baino ez nintzen.

Itsasertzetik zerura begiratu nuen, izarrez josia zegoen izara beltza, ilargia gaueroko adiskide zuela. Haiek denak ere aske zirela iruditu zitzaidan, gustura bizi zirela, gustura eta libro.

Orduan, gehiago ezin nuela irauin ikusi nuen, infernu hartatik ihes egin behar nuen, bere garretan erre baino lehen.

Baina infernu haren eta paradisuaren artean ur mehatxagarriaz beteriko itsasarte hura ageri zen tinko, eta hark nire gogoaz lur jota uzten zuen.

Izarrei begiratzeari utzi eta oinutsik etxetat neukan txabolara abiatu nintzen, buruan elkarrengandik banatzen genituen itsaso madarikatua nuela. Bidean, elkarrekin igarotako garai ahaztezin haiek etorri zitzaizkidan gogora.

Basamortu amaigabeetako gau izartsuak izan ziren babesle, elkar ezagutu genuen hartan. Gau lasai eta isilak, maitasunez beteak, izan genituen zaindari, momentu zoragarri haietan. Izarren azpian maitemindu ginen, bi txoriren pare. Historiaz beterik zeuden, Tangerang-eko harresi misteriotsuak izan ziren gure maitasun jaioberriaren testigu. Hantxe pasatzen genituen eguzkia hondarezko mendien atzean indargabe izkutatzen zeneko orduak, maitasunezko hitzak elkartrukatu, jostari.

Bion bizitzek geldione bat egin zuten, bizitza berri bateko kimuak jaio ziren bion bizitza asper-

garri eta gogorraren zuhaitzean, ohiko errealitate zen mundu zital eta gupidagabetik ihes egin genezan, eta halaxe gertatu ere. Egun zoragarriak, gaindiezinak, ahaztezinak... izan ziren haiek, bai niretzat, bai berarentzat ere. Etenik gabeko zerbaitek elkartzen gintuen egunero-egunero, egunez egun gero eta handiago bilakatuz joan zen zer batek lotzen gintuen. Ohartzeke, maitasunaren eztizko sareetan harrapatuta geunden biok Afrikako basamortu basati eta zoragarrian.

Baina betiko iraungo zuela uste nuen egoera hark tamalez ez zuen asko iraun. Iritsi zen lurralde gupidagabe hartatik alde egin behar genuela esan zidan eguna, bere jaioterrian biok elkarrekin zoriontsu biziko ginela agindu zidan. Nik, sinetsi egin nion, berak maite baininduen, nik bera maite nuen bezalaxe.

Baina zoritxarrez, gauzak ez ziren guk amestu bezala irten.

Paradisu bidean, Afrikako mugako arazoez beteriko horma gaindituta genuela, Gibraltarreko urak pasatzearekin harro sentitzen nintzen neure buruarekin, ametsez beteriko bizitza piztera zihohan. Espainiako mugan amets guztiak itzali ziren. Indarkeriaz eta gure eskubideak defenditzeko inongo aukerarik eman gabe elkarrengandik banandu gintuzten. Bera, bere jaioterrira eraman zuten, ni berriz, Afrikako infernura itzuli ninduten, objektu soil bat izanen banintz bezala. Non zegoen Giza Eskubideen hamairugarren artikulak zioena?

Baina alferrik zen, otsoak bere atzaparretan harrapatu gintuen eta ez zegoen atzera bueltarik.

Bere irudia etorri zitzaidan burura, izarren babe-sa ene txabolako lur zikinaz ordezkatu nuenean. Saharako basamortuko hare-ale guztiak baino gehiago maite nuen. Bere ile luze marroi argiak, tartean urre gorritzko adatsak, iluntzeko eguzki gorri beheratuaren argitasun apalean, inoiz ikusi dudan ikuskizunik politena eskaintzen zuten, azal xuri fineko aurpegi laztan hura irribarrez poz gozotan zuen bitartean, eguzkiaren errainu ahulek azpegiaren irudia argi horixka batez inguratzen zutelarik. Palmondoen gerizpetik egoten nintzaion begira; irudi haiek bihotzaren barreneraino sartze-an, begiek ñir-ñir geldiezin bat egiten zidaten. Bere irudia soilik begietan, bere barre alaia soilik belarrietan, bera soilik bihotzean. Momentu haie-tan denbora gelditu egiten zen niretzat, sentsazio hark betiko iraun zezan desiratuz.

Gau hartan ezin izan nuen begirik bildu, bere irudia etortzen zitzaidan burura behin eta berriro, ahaztezina zen bere edertasuna. Agian hark eman zidan azken bultzada buruan nerabilen ideia hura gauzatzeko. Bai, hura izan bide zen infernu mada-rikatu hartan igaroko nuen azken gaua, goizean goiz arrantzarako erabiltzen nuen txalupatxoa hartu eta nire maitearen erresumarantz abiatu nintzen.

Afrikako azken gau hura luze egin zitzaidan, egi-tera nindoanari hamaika buelta eman nizkion, behin betiko utzi nahi bainuen lurralde hura.

Baina posible izango al nuen neuk bakarrik egitea? Burutapen txoro bat bezala hartzen nuen zenbait unetan. Eta mugan berriro harrapatzen baninduten, orduan, zer gertatuko ote zitzaidan?

Kezka eta urduritasunez beterik igaro nuen gaua, hala ere bera kezka guztien gainetik zegoen eta hark proeza neurtezin batez betetzen ninduen, eta ez zen gutxi.

Nire bizitzako egunik garrantzitsuena eguzkia hondarrezko mendi artetik atera baino askoz lehenago hasi nuen. Ilargiaren argi apalez baliatu nahi nuen itsasarteko urak pasatzeko. Infernuko lurrak azken aldiz ukitu nituenean, nire erreginarengandik gertuago sentitu nintzen, baina oraindik bide arriskutsu eta luzea hasi baino ez nuen egin. Ene txalupa xumean sartu eta Alari errezatu nion, dena ongi joan zedin.

Eguna argitu baino lehenago nahi nuen iritsi Espainiako itsasertzera, bestela akabo, eguzkiaren argitan lan erraza izango zuen poliziak ni ikustea.

Itsaso baketsuan, arrainei begira geratu nintzen urak txalupari zambuluz lasaiak eragiten zizkion bitartean. Ni ere arrain izango banintz, aske izango nintzateke. Atlantikorantz igeri egingo nuke, orduan, mundu bekaizti honetako mugetatik erabat libre izango nintzateke nire maitearekin batera.

Aurrera nindoala, atzean utzi nuen betiko iragana, igarotako momentu txarrak, momentu onak..., baina ahantzi egin behar nuen infernuaz, orain, larrosa gorriez apainduriko etorkizuna baitzeterren.

Ilargia ezkututzerako iritsi nintzen espainiar mugako lurretara, baina eguzkia ateratzerako aldendu nintzen handik.

Euria gogotik ari zuen Madrilera iritsi nintzen abenduko arratsalde ilun hartan. Bide hura guztia egiteko, nuen guztia eman nuen, sekulakoak ikusi eta pasa behar izan nituen. Baina ilusioz beterik nengoen, gero eta hurbilago nuela somatzen bainuen. Kilometro gutxi falta zitzaizkidan erresumara iristeko. Azkenean elkartuko nintzen nire mai-tearekin.

Bozkario eta ilusio haiek, ordea, ordura arte lagun izan nuen zorte onarekin amaitu zuten.

Gaueko langile luze buru-argiak lanean hasiak ziren, kale estu eta ilun batean barneratu nintzenean, gaua pasatzeko leku lehor baten bila. Berehala ohartu nintzen kale hura arriskutsua zela ni bezalako kanpotarrentzat.

Zoritxarrez ez nengoen oker. Gorputz osoa dardarka nuen, buelta hartu eta kale beldurgarri hartatik alde egitera nindoala, ilerik gabeko mutil talde batek inguratu ninduen.

Handik pixka batera, ene gorputza kale bustiaren gainean nuela, azken hatsa bota nuen. Muga politikoa gainditzea lortu nuen, baina beste muga batzuen atzaparretan erori nintzen.

Orain beste munduan nago. Hemen ez dago bananduko gaituen mugarik, ez dago arrazakeriarik, ez eta biolentziarako lekurik; bakea da nagusi. Goiko mundu honetan ez dago arraza bereizketarik, guztiok dauzkagu eskubide berberak, denok

gara familia bereko anaiak. Hor beheko munduan tamalez, ez da posible izango hau gertatzea. Hala eta guztiz ere, ez naiz zoriontsu, zu ez baitzaude nirekin, eta horrek tristura sorrazten dit. Ikusten zaitut, baina nigandik urruti zaude, oso urruti. Maitasuneranzko bidearen erdian geratu nintzen zoritxarrez, helmugarako bidearen lorratzean.

Biok elkarturik, aske eta zoriontsu izango garen egun handira arte zain egongo natzaizu, orduan inork ez gaitu bananduko, nahiz zu zuri eta ni beltza izan.

Hemen goiko munduan, maitasunak ez baitu mugarik.